

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2023ko irailaren 28a, osteguna

TOKIA: Udalbatzarraren aretoa

DEIALDIA: Lehena

HASTEKO ORDUA: 19:30 **BUKATZEKO ORDUA:** 20:45

BERTARATUAK:

Alkatea

Anuska Esnal Oliden

Zinegotziak

Olatz Santamaria Bereziartua, Xabier Ibarguren Azkue, Ainara Munduate Iguaran, Bittor Andres Alkorta, Iñaki Makazaga Urdangarin, Lohitzune Solabarrieta Odriozola, Iosu Lizarralde Ibarbia, Nagore Rementeria Argote, Inaxio Alguacil Barrenetexea, Noemi Ostolaza Arkauz, Lourdes Salsamendi Goñi eta Jon Basurko Sarasua.

Idazkari-kontu-hartzailea

Jon Carrera Jauregi

Gai-zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, 2023ko uztailaren 27ko udalbatzarraren ohiko bilkuraren aktaren zirriborroa.
- 2.- 2023ko udal-aurrekontuaren bigarren hiruhilekoaren exekuzioaren berri ematea.

- 3.- 2023ko bigarren hiruhilekoari dagokion ordaintzeko batez besteko epearen berri ematea.
- 4.- Adjudikatzea, egoki bada, Orioko kale-garriketa zerbitzuaren kontratazioa.
- 5.- Onartzea, egoki bada, ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketaren proposamena, eragina 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena.
- 6.- Onartzea, egoki bada, 2024ko egutegi fiskala.
- 7.- Eskariak eta galderak.

Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2023KO UZTAILAREN 27KO UDALBATZARRAREN OHIKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, inork inolako oharrik egiten ez duenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira, **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA 2023ko uztailaren 27ko udalbatzarraren ohiko bilkuraren akta.

2.- 2023KO UDAL-AURREKONTUAREN BIGARREN HIRUHILEKOAREN EXEKUZIOAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

3.- 2023KO BIGARREN HIRUHILEKOARI DAGOKION ORDAINTZEKO BATEZ BESTEKO EPEAREN BERRI EMATEA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jasotzen du eta jakinaren gainean geratzen da.

4.- ADJUDIKATZEA, EGOKI BADA, ORIOKO KALE-GARBIKETA ZERBITZUAREN KONTRATAZIOA.

Udalbatzarrak Orioko kale-garriketa zerbitzuaren kontratazioa adjudikatzeko proposamenaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Kontratazio Mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ADJUDIKATZEA «FCC Medioambiente SAU» merkataritza-erakundeari Orioko kale-garbiketa zerbitzuaren kontratazioa, baldintza ekonomiko-administratiboen orrietan eta baldintza teknikoen orrietan xedatutakoaren arabera eta enpresa adjudikaziodunak berak aurkeztutako proposamenaren terminoetan, bera izan delako adjudikazio-irizpideen arabera puntuazio altuena lortu duen enpresa.

Kontratuaren prezioa 599.790,81 eurokoa da urtean (BEZa barne). Kontratuaren iraupena 6 urtekoa da eta beste bi urtez luzatzeko aukera dago, bi aldeek hala erabakitzen badute.

Emandako botoa azaltzeko, Ainara Munduate zinegotziak hartzen du hitza, EH Bildu talde politikoaren izenean, eta adierazten du Orioko kale-garbiketa zerbitzua kontratatzeko aurreko adjudikazioa 2014koa dela eta gaur egungo kontratazioa lau ardatz nagusi hauetan oinarritzen dela:

- Zerbitzua emateko makineria zahartuta dago eta nahitaez berritu behar da.
- Orioko Antilla hondartzan zerbitzu gehiago emango dira, Aste Santutik irailera arte.
- Lurpeko edukiontzien garbiketa ere sartu da.
- Zerbitzua ematen duten langileen lan-baldintzak babestu dira.

Ainara Munduatek dio, horren guztiaren ondorioz, zerbitzuaren kostua bikoiztu egin dela: urtean 300.000 eurotik 600.000 eurora.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORDENANTZA FISKALEN ETA BEREN ERANSKINEN ALDAKETAREN PROPOSAMENA, ERAGINA 2024KO URTARRILAREN 1ETIK AURRERA IZANGO DUENA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du. Gaia 2023ko irailaren 22ko Barne Antolaketa batzordean diktaminatu da, segidan zehazten den eran:

1.- Diktaminatzen da Izaera Urbanoko Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari dagozkion karga-tasak **% 3 IGOTZEA**, era honetara:

Izaera Urbanoko Ondasun Higiezinaren gaineko zergari aplikatu dakiokeen karga-tasa hau da:

- ‰ 4,205, zona industrial edo tertziarioetan kokatuta dauden ondasun urbanoetarako.
- ‰ 2,031, gainerako ondasun higiezinatarako.

Hobari hau **MANTENTZEA** ere diktaminatzen da:

1.- Familia ugarientzako hobaria:

Hobariaren portzentajea aldatu egingo da azaroaren 18ko 40/2003 Legearen 4. artikuluan zehaztutako familia ugariaren kategoriaren arabera.

- Kategoria bereziko familia ugarien kasuan, hobaria %90ekoa izango da.
- Kategoria orokorreko familia ugarien kasuan, hobaria % 50ekoa izango da.

Kasu guztietan, hobariak ezin izango du 250 euroko muga gainditu.

Hobaria lortzeko betebeharrak hauek dira:

- Familia ugariaren titular diren subjektu pasiboek segidan aipatzen diren agiriak aurkeztu beharko dituzte, familia ugariaren titulua iraungi arte ofizioz hobaria aplikatu ahal izateko, salbu eta Ondasun Higiezinak gaineko Zerga arautzen duen Foru Arauaren aldaketaren onartzen bada.
 - Interesdunaren eskaera, Udalak emandako ereduaren arabera.
 - Familia ugariaren tituluaren fotokopia konpultsatua. Udalak egiaztatuko du familia unitateko kideak ohiko etxebizitzan errolatuta daudela urte bakoitzeko urtarilaren 1ean.
- Familia ugariaren titularrak etxebizitza bat baino gehiagoren jabe badira, hobaria ez da aplikatuko.
- Urteko errolda behin betiko itxi baino lehen eskatu beharko da hobaria.
- Errolda behin betiko ixten denean, geroago egindako eskaerek ez dute eraginik izango uneko ekitaldian.
- Herritarrak eskaerari aurka egiten ez badio, diruzaintzako langileek datu hauek egiaztatuko dituzte datuen bitartekotzarako plataformatik eta beste administrazio batzuetatik:
 - Familia ugariaren liburua.
 - Ondasun higiezinak: etxebizitzaren titularra.
 - Ondasun higiezinak: udalerritik kanpoko etxebizitzak.
- Betiere, aldez aurretik baldintza hauek betetzen badituzte:
 - Familia ugariaren ohiko etxebizitza izan behar du eta familiako kideak bertan egongo dira errolatuta.

- Familia-unitateko kideek ez dute jabetzan eduki behar beste ondasun higiezinik, ohiko etxebizitzaz gain.

Hobari hau **MANTENDU ETA EGOKITZEA** ere diktaminatzen da:

2.- Energia aprobetxatzeko sistemak.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 15. artikulua araber (apirilaren 15eko 3/2021 Foru Arauak aldatu duena), hobari hau aplikatuko da:

Energia berriztagarrien bidezko aprobetxamendu termiko edo elektrikoko sistemak dituzten ondasun higiezinak %40ko hobaria izango dute Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotan.

Instalazio horiek Eraikinetako Instalazio Termikoen Erregelamendua (EITE) bete beharko dute.

Eraikina Eraikuntzaren Kode Teknikoaren eta Energia Aurrezteko Araudiaren (CTE-DB-HE) araber egin bada, ez da hobari hau aplikatuko.

Hobaria lortu ahal izateko, interesdunek eskaera bat aurkeztu beharko dute, eta horrekin batera: goian aipatutako baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak.

Hobaria behin bakarrik aplikatuko da, hau da, eskaera egiten den urtean.

Bestalde, hobari horiek aplikatzeko, nahitaezkoa izango da Udalaren zergak ordainduta izatea. Baldintza hori ezinbestekoa da hobaria emateko, eta betetzen ez bada, eskubidea galduko da.

Indarrean segitzen dute ondoko errekaratu hauek:

Subjektu pasiboaren edo hirugarrenen (alokairuagatik edo erabileraren lagapenagatik) ohiko etxebizitza ez diren bizitoki erabilerako ondasun higiezinak %50eko errekaratu aplikatuko die Oriko Udalak zergaren kuota likidoaren gainean.

Errekaratu hori zergaren subjektu pasiboari exijituko zaie eta zergarekin batera sortuko da; likidatu ere, urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

Errekaratu hori aplikatzeko, bizitoki-erabilerako higiezin honako hau hartuko da: katastroan etxebizitza erabileradun gisa jasota dagoen lokala.

Etxebizitzaren eranskinak ere sartuko dira, erregistroan finka bakar gisa ageri badira.

Eragin horietarako, bizitoki-erabilerako higiezin bat ohiko etxebizitza dela kontsideratuko da, baldin eta, zerga sortzen den datan, Udaleko erroldan okupatzaileen ohiko etxebizitza gisa jasota badago higiezin hori.

Errekaratuen salbuespenak:

1. Ondasun higiezinaren gaineko zergen hobariren bat gozatzen dutenak.
2. Udaleko Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren matrikulan alta emandako jarduerari atxikitakoak.
3. Zergaren sortzapenaren aurreko urtean 9 hilabete baino gehiagoz alokatuta egon diren etxebizitzak (alokatuta bakarrik; ez dira sartzen erabilera-lagapenak).

Honako dokumentazioa aurkeztu beharko da, salbuespena aplikatzeko:

- Salbuespena aplikatzeko eskaria.
- Alokairu-kontratua, behar bezala datatu eta sinatuta. Kontratu horretan agertu behar du higiezinak etxebizitza-xedea edo erabilera izango duela.
- Alokairua kobratu izana justifikatzen duten agiriak, zergaren sortzapenaren aurreko urteari dagozkionak.

Gipuzkoako Foru Ogasunari alokairu-kontratu horien berri emango zaio.

4. Zahar-egoitzatan erroldatutako pertsonen titularitatepeko etxebizitzak. Salbuespen hau aplikatuko zaio, bakar-bakarrik egoitzan sartu aurretik pertsona horren ohiko etxebizitza zenari.
5. Herentzia baten parte diren etxebizitzak, titularra hil eta bi urteko epean.
6. Zergaren sortzapenaren aurreko urteko azaroan edo abenduan erositako etxeak, non, nahiz eta urtarilaren 1ean inor ez egon erroldatuta, erroldatzeko tramitea egin den zergaren sortzapenaren urteko lehen hiruhilabetean.
7. Legez aurri-egoeran deklaraturako eraikinetan kokatutako etxebizitzak.
8. Hiri katastroaren erregistroan bi finka independente osatzen dituzten etxebizitzak, baina etxebizitza bakar modura erabiltzen direnak. Zirkunstantzia horien balorazioko txostena udal zerbitzu tekniko eskudunek egingo dute.
9. Lurzoru urbanizaezinean eta lurzoru urbanizagarrian kokatutako etxebizitzak.
10. Urbanistikoki antolamenduz kanpokotzat kalifikatutako eraikinetan dauden etxebizitzak.
11. Ohiko etxebizitza ez diren etxebizitzak, baldin eta urteko gutxienez 300 kWh-ko energia-kontsumoa frogatzen badute. Zergaren sortzapenaren aurreko urtean izandako elektrizitate edo gas kontsumoen fakturak aurkeztuta frogatuko da zirkunstantzia hori.
12. Zaintza pertsonalak behar dituzten mendeko pertsonen jabetzako etxebizitzak, baldin mendeko pertsona hori bera zaintzeaz arduratzen den familiarraren

etxean bizi eta erroldatuta badago. Salbuespen hau aplikatzeko beharrezkoa izango da utzi den etxebizitza hori mendeko pertsonaren ohiko etxebizitza izatea, familiarraren etxebizitzara joan aurretik.

Diktaminatzen da nekazaritza-izaerako ondasun higiezinaren gaineko zergari aplikatzen zaion karga-tasa %1,10ean **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA**.

2.- Diktaminatzen da **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA** Orioko jarduera ekonomikoen gaineko zergaren exakziorako hainbat ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskalean ezarritako gutxieneko kuoten gehikuntzarako koefiziente bakarra.

3.- Diktaminatzen da **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA** izaera urbanoko lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskaleko koefizienteak eta karga-tasak.

4.- Diktaminatzen da **%3 IGOTZEA** trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zergari dagozkion tarifikak, era honetara:

I. TARIFEN TAULA

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 14/1989 Foru Araua aldatzen duen Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Zerga Erregimenari buruzko abenduaren 27ko 4/1999 Foru Arauan xedatutakoa betez, zerga hori 2024. urteko urtarrilaren 1etik aurrera exijituko da, ondoko tarifa-taularen arabera:

POTENTZIA ETA IBILGAILU-MOTA	KUOTA, EUROTAN
A) Turismoak	
9 zalditik beherakoak	43,54
9tik 11,99ra bitartekoak	90,24
12tik 13,99ra bitartekoak	147,72
14tik 15,99ra bitartekoak	209,92
16tik 19,99ra bitartekoak	287,22
20tik gorakoak	355,13
B) Autobusak	
21 plaza baino gutxiago	204,10
21 plazatik 50era	290,37
50 plazatik gorakoak	363,93
C) Kamioiak	
1.000 kg-tik beherako karga erabilgarria dutenak	103,37
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	200,50

2.999tik 9.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	285,22
9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	357,50
D) Traktoreak	
16 zaldi fiskaletik beherakoak	44,37
16 zaldi fiskaletik 25era	68,52
25 zaldi fiskaletik gorakoak	204,10
E) Trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak	
1.000 kg-tik beherako eta 750 kg-tik gorako karga erabilgarria dutenak	44,37
1.000tik 2.999 kg-ra bitarteko karga erabilgarria dutenak	68,52
2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria dutenak	204,10
F) Bestelako ibilgailuak	
Ziklomotorrak	11,75
125 cc arteko motorrak	11,75
125 cc eta 250 cc arteko motorrak	20,06
250 cc eta 500 cc arteko motorrak	40,41
500 cc eta 1.000 cc arteko motorrak	79,77
1000 cc-tik gorako motorrak	159,55

Zerga honen tarifei dagokienez, motozikleta elektrikoak 125 zentimetro kubiko arteko motozikletatzat hartuko dira, gaia lege orokor edo foru arau baten bidez arautzen den arte.

Zerga hori arautzen duen ordenantza fiskalean ezarritako hobari guztiek indarrean segitzen dute, era honetara:

II. HOBARIAK

Hobariak emateko, aldeztu aurretik eskatu egin beharko da. Hobariak eskaera egin eta hurrengo ekitaldian aplikatuko dira eta ez dira atzeraeraginezkoak izango. Hala ere, onura fiskala ekitaldiko urtarilaren 15a baino lehen eskatzen bada, eskatzen den ekitaldirako emango da, baldin eta zergaren sortzapenaren egunean hobaria hartzeko eskatzen diren baldintzak betetzen badira.

Hobari hauek aplikatu ahal izango dira:

- %75eko hobaria, ibilgailu elektrikoetan eta energia elektrikoa eta erregaiak konbinatzen dituzten ibilgailu hibridoetan.

- Matrikulatu berri diren eta 120 gramo karbono dioxido (CO₂)/kilometro baino gutxiago isurtzen duten ibilgailuek %25eko hobaria izango dute; eta 110 gramo karbono dioxido (CO₂)/kilometro baino gutxiago igortzen dutenek, %40koa.

Hobaria 2 urterako emango da, ibilgailuaren lehen matrikulaziotik hasita.

Hobarirako eskubidea izateko, interesdunek, eskaeraz gain, Ibilgailuen Azterketa Teknikoaren txartela eta energia-eraginkortasunaren etiketa aurkeztu beharko dituzte, baldin eta ibilgailu hori ez bada ageri Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) argitaratutako «Erregaiak eta CO₂-emisioen kontsumo-gida»n.

Zergaren kuotaren %100eko hobaria ezarriko zaie ibilgailu historikoei edo gutxienez 30 urteko antzinatasuna dutenei, fabrikatu ziren egunetik kontatzen hasita. Data hori ezagutzen ez bada, lehen matrikulaziokoa hartuko da aintzat edo, bestela, mota edo aldaera hori fabrikatzeari utzi zitzaion eguna.

Hobari hau eskatu beharrekoa da eta, Udalak onartu ondoren, eskatu eta hurrengo zergaldian sortuko ditu ondorioak.

Zerga hau arautzen duen ordenantza fiskaleko 2. artikuluko e) letran xedatutakoaren ondorioetarako, adierazten da abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretua indargabetu dela eta minusbaliotasun-maila onartu, aitortu edo kalifikatzeko prozedurari buruzko urriaren 18ko 888/2022 Errege Dekretuak ordeztu duela.

5.- Diktaminatzen da **MANTENTZEA ETA EZ IGOTZEA** eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergari dagozkion tasak, honela idatzita:

Karga-tasa orokorra: 5%

ERAIKUNTZA, INSTALAZIO EDO OBRA MOTA	HOBARIAK (%)
a) Irabazi asmorik gabeko pertsona fisiko edo juridikoek Orioko Hirigune Historikoaren edo Hirigune Historikoaren mugaketa-eremuaren barruan egiten duten eraikuntza, instalazio edo obra guztiak, gehienez ere 2 solairu eta estalkipeko aprobetxamendua dutenak.	%60
b) Irabazi asmoa duten pertsona fisiko edo juridikoek Orioko Hirigune Historikoaren edo Hirigune Historikoaren mugaketa-eremuaren barruan egiten duten eraikuntza, instalazio edo obra guztiak	%20
c) Baserri eta eranskinetako edozein eraikuntza, instalazio edo obra	%50
d) Sustapen publiko edo pribatuko etxebizitza sozialetako edozein eraikuntza, instalazio edo obra	%60
e) Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra	%40

f) Irisgarritasuna hobetzeko edo elementu komunetako oztopo arkitektonikoak kentzeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra. Hobari hau ez zaie aplikatuko eraikin berrietan egindako eraikuntza, instalazio eta obrei, eta ezta ere eraikuntza baten birgaitze integrala dakarten eraikuntza, instalazio eta obrei	%95
g) Desgaitasuna duten mugikortasun murriztuko pertsonen etxebizitzak egokitzeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra	%80
h) Eraikuntza, instalazio eta obretan eguzki-energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemak ezartzen direnean autokontsumorako. Hala ere, hobari hori aplikatzeko, beroa sortzeko instalazioek administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak izan behar dituzte	%95
i) Merkataritza- eta industria-establezimendu berriak irekitzeko eraikin, instalazio eta obra guztietan, baldin eta jarduera ekonomiko horretarako lokalaren azalera 140 metro koadrokoa edo txikiagoa bada	%90

Orioko Hirigune Historikoaren mugaketa-eremuaren barruko gutxieneko tarifa	38,32€
Gutxieneko tarifa udalerriaren gainerakoan	76,58€

Zerga hau aplikatzeko arauak:

Obra handietan, hondakinen kudeaketa behar bezala bermatzeko, eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zergaren %50eko abala aurkeztu beharko da, eta obrak amaitu ondoren, aurkeztutako abala itzuliko da, baldin eta hondakinen kudeaketa behar bezala eta egoki egin dela egiaztatzen bada, dagozkion ziurtagiriak aurkeztuta.

Ezin da hobari bat baino gehiago aplikatu aldi berean. Hau da, eraikuntza, instalazio edo obra bakoitzak hobari bakarra izango du, zergadunarentzat onuragarriena.

Obrak irisgarritasun eta bizigarritasun arlokoak izango dira eta, beraz, hobaria izango dute, baldin eta udal-teknikari batek ezintasunak dituzten pertsonen irisgarritasuna eta bizigarritasuna hobetzeko nahitaezkoak direla frogatzen badu ziurtagiri bidez.

6.- Ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak **MANTENTZEA eta EZ IGOTZEA** diktaminatzen da:

- Udal erabilera publikoko lurretan zangak eta hobiak irekitzea.
- Indar elektrikoa, ura, gasa edo beste edozein fluido garraiatzeko linea, hoditeri eta galeriak.
- Bide publikoan kioskoak instalatzea.

- Bide publikoko lurzoru, lurpea eta hegalkinen erabilera pribatiboa eta aprobetxamendu berezia.
- Kutzazain automatikoak eta bide publikotik irismena duten salmenta-makinen instalamendu eta funtzionamendua.
 - Finantza erakundeek edo gordailu-erakundeek fatxadetan kutxazain automatikoak instalatu eta funtzionamenduan edukitzeagatiko zerga-tasa urteko 471,82 eurokoa izango da.
 - Tasa honen b) atala 46,98 eurokoa izango da metro lineal eta urte bakoitzeko.
- Udal-administrazioak edo udal-agintariak norbaiten eskariz emandako agiriak.
- Lurzoruari eta antolamendu urbanoari buruzko legeek exijitutako lizentzia urbanistikoak ematea.
- Udal-hilerrian zerbitzuak eta kontzesioak ematea.
- Jarduera-lizentzia ematea eta jardueraren eta instalazioaren funtzionamenduari buruzko ikuskarpenak egitea.
- Orioko Udal Musika Eskolan egindako ikasketak. 2023-2024 ikasturtean aplikatu beharreko tarifak 2023ko ekainaren 26ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (122. zk.) argitaratu ziren.
- Udal Kiroldegia erabilera
- Udal-futbol/softbol zelaia erabilera.
- Tennis, paddle eta squasheko udal pisten erabilera.
- Arraunetxeko instalazioen erabilera.
- Azurza Etxeko tutoretzapeko apartamentuen erabilera

7.- Ondoren zerrendatzen diren tasei aplikatzen zaizkien tarifak **IGOTZEA** diktaminatzen da:

- Udal erabilera publikoko lurrak okupatzea (ezarritako hobariak indarrean segituko dute).
- Ibilgailuak sartzea espaloian barrena eta bide publikoa erreserbatzea modu eskusiboan aparkatzeko, ibilgailuak geratzeko eta edozein motatako salgaien zama-lanerako.

- Udal erabilera publikoko lurak okupatzea, mahaiak, aulkiak, tribunak, oholtzak eta antzeko elementuak jarrita, irabazteko asmoarekin, salbuespen honekin: mahai, mahaitxo, aulki eta abarrak establezimenduaren barruan gordetzen ez dituzten establezimenduen titularrek, udalerrian duten kokalekua edozein dela ere, 29,87 euroko tarifa aplikatuko zaie metro koadro edo zatiki bakoitzeko eta urteko. Aplikatu beharreko tarifak % 3 igoko dira.
- Udal erabilera publikoko lurretan postuak, barrakak, salmenta-guneak, ikuskizunak, atrakzioak eta horrelakoak instalatzea (kaleko industriak, industria ibiltariak eta zinema-filmaketak barne). Horretarako ezarrita dauden hobariak indarrean segituko dute, baina tarifaren aplikazio-arau hauek jarraituta:

Tarifa hau aplikatzeko arauak:

- Irabazi asmorik gabeko udal elkarte eta entitateek ez dute kalez kaleko saltokien tarifa ordaindu beharko. Asteko azokan kalez kaleko salmenta postu baten titular batek ez badu dagokion tarifa ordaintzen, gehienez ere 3 hilabeteko epean, postuaren titulartasunerako eskubidea galduko du eta utzi egin beharko du.
- Telesail baten grabazioari edo filmatzeari eta antzeko jardueri dagokienez, aplikatu beharreko tarifaz gain, grabazioan edo filmatzean kalteak edo galerak sortzen badira, Orioko Udalak eragindako kalte edo galera guztiak ordaintzeko eskatuko du.
- Zirkuak jartzeari eta telesailak grabatu edo filmatzeari eta antzeko jardueri dagokienez, Eusko Jaurlaritzaren edo Orioko Udalaren elkartearen erregistroan inskribatuta dauden irabazi asmorik gabeko udal-elkarteek edo pertsona fisikoek ez dute erreferentziazko tarifarik ordaindu beharko –edo dagokien hobaria aplikatuko zaie–, ez eta interes kultural-turistikoko entitateek ere, gaia dela-eta eskumena duen udal-batzorde informatzaileak hala diktaminatzen badu.
- Tarifan %50eko hobaria aplikatuko da, telesail baten grabazioa edo filmazioa eta antzeko jarduerak oso-osorik euskaraz egiten direnean.
- Aplikatu beharreko tarifak % 3 igoko dira eta atal gehigarri hauek ezarriko dira:
 - Erakusketak eta saltokiak ez diren baina xede komertziala dutenak: 0,82€/m² eta eguneko edo zatikiko.
 - Kirol-, kultura- edo artisau-erakusketak (irabazi asmorik gabekoak): 0,82 €/m² eta eguneko edo zatikiko.
- Trakzio mekanikoko ibilgailuak udalerriko kaleetan aparkatzea, horretarako erabakitako zonen barruan eta muga jakin batzuekin.

Egonaldi luzeei aplikatu beharreko tarifak %5 igoko dira, eta aparkatzeko udal txartela 80 eurotik 85 eurora igoko da urtean.

- Auto-taxien eta errentako gainerako ibilgailuen lizentziak eta baimenak ematea. Tarifa aplikagarria % 3 igoko da:
- Ibilgailuak geraraztea eta bide publikotik erretiratzea.
- Orioko Eguneko Zentroan ile-apaindegi zerbitzuak ematea. Aplikatu beharreko tarifak zerbitzua ematen duen kontzesiodunarekin adostu dira alde zuzenetan, eta hauek dira:

ZERBITZUA	PREZIOA EUROTAN
a) Orrazketa	3,05
b) Garbitzea eta markatzea	9,00
c) Eskuz lehortzea	9,00
d) Ilea moztea	8,00
e) Metxak	20,00
f) Permanentea	20,00
g) Tindatzea	20,00
h) Plisa	2,50
i) Bitamina	4,25
j) Crema	2,25
k) Manikura	6,00
l) Bekainak	2,25
m) Goiko ezpaina eta kokotsa	3,00
n) Ilea moztea osotasunean (garbitu, moztu, aparra...)	28,00
o) Garbitu eta lehortzea	15,00
p) Permanente osoa	40,00
q) Metxa osoak	40,00
r) Moztea + Tindatzea	40,00

- Arriskutsu izan daitezkeen animaliak edukitzeko beharrezko baimenak ematea, zehaztapen honekin: Tarifa hau aplikatuko da: 131 € animalia bakoitzeko eta lizentzia berri edo berriztapen bakoitzeko.

- Udal-pilotalekua edo Antilla hondartzako kabinak erabiltzea. Udal-pilotalekuaren tarifak ez dira igoko. Orioko Antilla hondartzako kabinen tarifak, aulki, paipo eta eguzkitakoei dagozkienak, ez dira igoko; etzaulki eta oholei dagozkienak, berriz, hauek dira:

ALDIA	PREZIOA EUROTAN
Eguneko	1,00
Asteko	5,00
Hileko	13,50
Denboraldiko	35,00

- Udal kanpinaren erabilera.
 - Alde batetik, eguneko egonaldiaren tarifak %5 igotzea diktaminatzen da, goi-denboraldian, denboraldi ertainean, behe-denboraldian, jai-zubietan eta egonaldi luzean; bestetik, bungalowak erabiltzeko tarifak, denboraldien arabera, %3,5, %3 eta %2,5 igo dira, hurrenez hurren.
 - Ez dira handituko garbitegiko zerbitzuaren eta dutxako zerbitzuaren tarifak.
 - Aparteko izarak eta toallak ematen direnean edo sofa-ohea erabiltzeko, tarifa berezi bat ezartzen da: 6,36 €/pertsonako (BEZik gabe).
 - ACSI gidaliburua dela eta, lursailetarako 22,73 €-ko tarifa ezarri da (BEZik gabe), eta, horrekin batera, 2 pertsona heldu egon daitezke egunean.
- Udal-kiroldegiko garajeen erabilera. Dagozkion tasak %5 igotzea diktaminatzen da, orokorrean.
- Mendibeltz futbol/sofbol zelaiaren azpiko garajeen erabilera. Dagozkion tasak %5 igotzea diktaminatzen da, orokorrean.

4.14 Turismo-bulegoa erabiltzea.

1. TARIFA. Ezabatzea erabaki da.

2. TARIFA. Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

PRODUKTUA	EURO/UNITATEA
Cuaderno de Urogallo guía del camino del norte	6,50
Orio-Oteiza katilua	4,00
Orioko argazkidun koaderno handia	2,80

Orioko argazkidun koaderno txikia	1,80
Iñaki Arrillagaren koadroak	30,00

3. TARIFA. Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

PRODUKTUA	EURO/UNITATEA
Bisita gidatua: «Errio, gure nortasuna»	3,00
Erraldoi baten salmenta: Pello edo Nikolasa	20,00
Erraldoi-bikotea saltzea: Pello eta Nikolasa	34,00

4.15 Udaletzeko teilatupeko gelaren erabilera.

Ezabatzea erabaki da.

4.16 Txu-txu trenaren erabilera eta publizitate-iragarkiak bertan jartzea.

Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

TXU-TXU TRENA PLAZATIK HONDARTZARA, UDAKO DENBORALDIAN	
Joan-etorriko bidaia	1,50 €/pertsonako
3 urtetik beherakoek	Doan
10 bidaiako bonua	6 €
Txu-txu trenean iragarkiak jartzeagatik	85 €/moduluko

4.17 Udalaren txosnaren erabilera.

Ezabatzea erabaki da.

4.18. Udalaren oholtzaren erabilera.

Ezabatzea erabaki da.

4.23. Udal-ludotekaren erabilera.

Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

Ikasturte osoa, (2023ko iraila - 2024ko ekaina)	50 €
Bigarren matrikulazio-aldia (2024ko urtariletik ekainera)	35 €
Hirugarren matrikulazio-aldia (2024ko apiriletik ekainera)	20 €

Berme Errentaren (DBE) edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzen (GLL) onuradunek ez dituzte kuotak ordainduko.

Zerbitzu honen erabiltzailea DBE edo GLL jasotzen duen familia-unitate batekoa dela egiaztatuko du udal-teknikari batek.

4.25. Etxez etxeko zerbitzuaren erabilera.

- Lanegunetan (astelehenetik ostiralera): 15,00 €/orduko
- Larunbat, igande eta jaiegunak: 18 € orduko.

4.26. Orioko ostalaritza-establezimenduetan zarata-neurketaren erabilera.

Aipamen hau gehitzea erabaki da: Zarata-neurketak eskatzen direnean, neurketa horien kostua salatzailearen edo salatuaren kontura izango da. Salatuari egindako zarata-neurketak zuzenak badira, neurketaren kostuak salatzailearen kontura izango dira, eta zarata-neurketak okerrak badira, salatuaren kontura izango dira gastuak.

4.27. Orioko Udalak antolatutako ikuskizun eta emanaldietarako sarreraren tarifak.

Orioko Udalak antolatutako ikuskizun eta emanaldietarako sarrerak ordaintzeko tarifa hauek onartzea diktaminatzen da:

Ekitaldiaren aurrekontua 600 €-koa edo txikiagoa bada	Doan
Ekitaldiaren aurrekontua 601-1500 € artekoa bada	2€
Ekitaldiaren aurrekontua 1501-3000 € artekoa bada	5€
Ekitaldiaren aurrekontua 3001 eurotik gorakoa bada	10€

Udal-batzorde eskudunak ikuskizun berezien tarifak ezarri ahal izango ditu, interes sozial, kultural edo bestelakoengatik. Tarifa horren gehieneko zenbatekoa 20 eurokoa izango da.

8.- Tarifa hauek IGOTZEA diktaminatzen da:

4.11. Kultur etxeko aretoen erabilera.

1. TARIFA

Orioko irabazi asmorik gabeko elkarteek ez dute tarifarik ordaindu beharko kultur etxeko aretoak erabiltzeagatik.

Merkataritza-entitateek, irabazi asmoa duten elkarteek edo pertsona fisikoek tarifa hauek ordaindu beharko dituzte kultur etxeko lokalak erabiltzeagatik:

a) Areto nagusia erabiltzeagatik	
Egun bakarrean erabiltzeagatik	28,00 €
Egun batez baino gehiagoz erabiltzeagatik	20 €/eguneko
b) Bilera-gela erabiltzeagatik	
Egun bakarrean erabiltzeagatik	20 €
Egun batez baino gehiagoz erabiltzeagatik	18 €/eguneko
c) Gelak erabiltzeagatik	
Egun bakarrean erabiltzeagatik	20 €
Egun batez baino gehiagoz erabiltzeagatik	18 €/eguneko

2. TARIFA

Liburuen salmentagatik aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

LIBURUAREN IZENBURUA	PREZIOA EUROTAN
Orio Historia Argazkitan	5,00
Orio Herrixka	5,00
Orio Oro Hori	5,00
Orio Arraunean	5,00
Uztapide Gogoan	5,00
Jorge Oteiza (Egonezinaren Laudorioa)	5,00
Elogio de una Inquietud (Oteitza)	5,00
Orioko Patroiak	5,00
Orioko Euskara	5,00
Gerra Bat Barruan Dugula	12,00
Euskal Arraunketaren Aro Modernoa (I, II edo III)	18,00

4.12. Udalbatzarraren aretoaren erabilera.

a) Ezkontza zibilak, heriotzagatiko ekitaldi zibilak edo bestelako ekitaldi zibilak egiteko:

- Tarifa bakarra: 75,00 € / ekitaldiko

b) Telesailen grabazioetarako eta antzeko jardueretarako:

- Lehenengo 2 orduak edo erabilera-zatikia arte.....297,00 €
- Bigarren ordutik edo frakziotik aurrera.....149,00 € / ordua

Tarifan %50eko hobaria aplikatuko da, telesail baten grabazioa edo filmazioa eta antzeko jarduerak oso-osorik euskaraz egiten direnean.

4.19. Katea (KTA) eraikineko lokalen erabilera.

Alokairuari aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

Egun bakarrean erabiltzeagatik	28,00 €
Egun batez baino gehiagoz erabiltzeagatik	20 €/eguneko
Beste edozein lokal erabiltzeagatik (m2-ko eta eguneko)	0,10 €
Txartel-giltza	5,00 €

Irabazi asmorik gabeko Orioko elkarteek ez dituzte tarifa horiek ordaindu beharko; beraz, tarifa horiek merkataritza-elkarteei, irabazi asmoa duten elkarteei edo pertsona fisikoei aplikatuko zaizkie.

Lokalak erabiltzea doanekoa izango da, bi betebeharrak hauek batera betetzen direnean: zerbitzua euskaraz ematen denean eta diru-saririk kobratzen ez denean.

4.20. Salatxo udal-aretoaren erabilera.

Orioko irabazi asmorik gabeko elkarteek ez dute tarifarik ordaindu beharko Salatxo udal-aretoa erabiltzeagatik.

Merkataritza-entitateek, irabazi asmoa duten elkarteek edo pertsona fisikoek tarifa hauek ordaindu beharko dituzte Salatxo udal-aretoa erabiltzeagatik:

Egun bakarrean erabiltzeagatik	28,00 €
Egun batez baino gehiagoz erabiltzeagatik	20 €/eguneko

4.21. Gaztelekuaren erabilera.

Ezabatzea erabaki da.

4.22. Udal-parrillen erabilera.

Ezabatzea erabaki da.

4.24. Arraunetxeko areto nagusiaren erabilera.

EKITALDIAK	
Egun erdia	206,00 €
Egun osoa	309,00€

SALBUESPENAK:

- Irabazi asmorik gabeko Orioko elkarteek ez dute inolako tarifarik ordaindu beharko Arraunetxeko areto nagusia erabiltzeagatik.
- Jarduerak 100 pertsona baino gutxiago bilduko baditu, Kultur Etxera edo Salatxo aretora bideratuko dira.

4.28. Udal-baratzeen erabilera.

Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

40m2-ko baratzeak	37,00 €/urteko
60m2-ko baratzeak	56,00 €/urteko

4.29. Udan ikastaroak eta jarduerak emateagatik tarifa (UDA kanpaina):

Aplikatu beharreko tarifak hauek dira:

Hamabostaldi bat	70 € (kiroldegiko bazkideek: 60€)
Bi hamabostaldi	120 € (kiroldegiko bazkideek: 100€)

9.- Kontuan hartuta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera mankomunatu zela zaborrak eta hondakin solido urbanoak biltzeko zerbitzua, aplikatu beharreko tarifak Urola Kostako Udal Elkarteko Batzar Nagusiak ekitaldi ekonomiko bakoitzerako onartzen dituenak izango dira.

10.- Etxebizitzetxei eta gainerako establezimenduei etxeko eta industriako erabileretarako edateko uraren horniduragatik eta ur harguneengatik aplikatu beharreko tarifak Gipuzkoako Ur Partzuergoaren Batzar Orokorrek ekitaldi ekonomiko bakoitzerako onartzen dituenak izango dira.

11.- Tokiko zergei eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerari aplikatzeko arau hauek **MANTENTZEA** diktaminatzen da: Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, Orioko udalerriko udal-zergak eta zuzenbide publikoko gainerako diru-sarrerak

ordainarazteari dagokionez, ez da berandutze-interesik eskatuko borondatezko aldian eskatu diren ordainketa geroratzeko edo zatikatzeko akordioetan, baldin eta horiek aldian aldiko muga-eguna duten zorrak badira, modu kolektiboan jakinarazi badira eta horien ordainketa, osotasunean, sortu ziren urte berean egiten bada.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2023ko irailaren 22ko bilkuran egindako proposamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ** [Aldeko botoak: Esnal (EH Bildu), Santamaria (EH Bildu), Ibarguren (EH Bildu), Munduate (EH Bildu), Andres (EH Bildu), Makazaga (EH Bildu), Solabarrieta (EH Bildu), Lizarralde (EH Bildu), Rementeria (EH Bildu) eta Alguacil, guztira **HAMAR ALDEKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz. Kontrako botoak: Ostolaza (EAJ), Salsamendi (EAJ) eta Basurko (EAJ); guztira, **HIRU KONTRAKO BOTO**]:

1.- LEHEN ONARPENA EMATEA ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketari, eragina 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera izango duena, erabaki honen azalpenean jasota dauden terminotan.

2.- JENDAURREAN JARTZEA erabaki hau eta hasitako espedientea, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Aginduaren 16.1 artikuluan ezarritakoa betez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan iragarkiak argitaratuz, arau hauen arabera:

Erakutsita dagoen lekua: Udaletxeko idazkaritzan.

Espedientea aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea: 30 lanegun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik kontaktzen hasita; betiere, bulego-orduetan.

Erreklamazioak aurkezteko aukera dutenak: Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 17. artikuluko zerrendan agertzen direnak.

Aurkezteko lekua: Udaletxeko Sarrera Erregistro Nagusian. Erreklamazioak aurkez daitezke, baita ere, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluko zehazten dituen tokietan.

Erreklamazioak jasotzen dituen organoa: Udalbatzarra.

Jendaurreko epea amaitu eta erreklamazio edo oharrik aurkezten ez bada, hartutako erabakiak eta aldatutako ordenantzen eranskinak behin betikoak bilakatuko dira, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Emandako botoa azaltzeko, Noemi Ostolaza zinegotziak hartzen du hitza, EAJren izenean, eta adierazten du bere talde politikoak abstentzio-botoa eman zuela irailaren 22ko Barne Antolaketa batzordean, proposatzen zuelako tarifak, orokorrean, %1,5 igotzea eta lehen sektorean, eta bereziki landa-eremuan, jarduera ekonomikoak dituzten herritarrei hobariak aplikatzea. Nolanahi ere, adierazten du aurreko astelehenean bilkura egin zuela EAJren tokiko batzarrak eta, bilera horretan, kontrako

botoa ematea erabaki zela, ez zutelako batzordean emandako abstentzio-botoa defendatzeko arrazoirik ikusten.

Noemi Ostolaza zinegotziak bukatzen du parte-hartzea eta adierazten du bere talde politikoari berria zaiola gaur egungo dinamika: alegia, astelehenean Barne Antolaketa batzorderako deialdia egin, ostiral horretan bertan bildu urteko ordenantza fiskalak diktaminatzeko, eta hurrengo asteko ostegunean udalbatzarrean onartu. Adierazten du ez zaiola dinamikarik egokiena iruditzen.

Ondoren, Inaxio Alguacil zinegotziak hartzen du hitza, EH Bilduren izenean, eta adierazten du arraroa egin zaiola EAJ talde politikoak emandako ezezko botoa, eta adierazten du EH Bildu talde politikoak aldeko botoa eman duela, ordenantza fiskaletako tasen %3ko igoera orokorra udal-departamentuetako ekarpenak jaso ondoren proposatu delako. Adierazten du, bestalde, eskerrak eman nahi dizkiela udal-teknikariei, egindako lanagatik. Esaten du, baita ere, kontuan hartu behar dela azken bi urteetan (2021 eta 2022) metatutako KPIa %13koa izan dela, eta, urte horietan, Orioko Udalak ez dituela igo ordenantza fiskaletako tarifikak, jasan dugun pandemiak sortutako egoera dela-eta. Nolanahi ere, Inaxio Alguacilek esaten du kontuan hartu behar dela ordenantza fiskaletan jasotako zergak eta tasak funtsezko diru-sarrerak direla Udalarentzat eta ohiko diru-sarrera horiek ohiko gastuak finantzatzeko erabili behar direla nahitaez. Horregatik guztiagatik, 2024ko ordenantza fiskaletan tasak, orokorrean, %3 igotzea, beharrezkoa izateaz gain, arrazoizkoa dela esanez bukatzen du.

Jarraian, alkateak hartzen du hitza eta adierazten du berari ere arraroa egin zaiola EAJ talde politikoak emandako ezezko botoa, azken lau urteotan ordenantza fiskalen eta beren eranskinen aldaketaren lehen onarpena iraileko ohiko bilkuran egin baita, eta, beraz, Udalaren prozedura (alegia, astelehenean Barne Antolaketa batzorderako deialdia egin, ostiral horretan bertan bildu urteko ordenantza fiskalak diktaminatzeko, eta hurrengo asteko ostegunean udalbatzarrean onartu) guztiz egokia dela. Adierazten du, baita ere, dagozkion proposamenak aurkeztu aurretik, aztertu behar dela ea betetzen dituzte lege-arauak eta foru-arauak; eta esaten du, bere ustez, 2024ko ordenantza fiskaletan tasak, orokorrean, %3 igotzea neurri egokia dela Udalak ematen dituen zerbitzu publikoen gastuei aurre egiteko eta osotasunean finantzatzeko. Bukatzeko, alkateak adierazten du prest dagoela, ondo arrazoitzen bada, Barne Antolaketa batzordearen deialdiaren dinamika birplanteatzeko.

Azkenik, Lourdes Salsamendi zinegotziak (EAJ) hartzen du hitza, eta adierazten du kontuan hartuta udal-aurrekontua onartzeko unean zuzenketak *a posteriori* aurkeztu behar direla —hau da, Alkatetzak egindako eta aurkeztutako aurrekontu-proiektua ezagutu ondoren—, bere talde politikoak, ordenantza fiskalak onartzeko unean ere berdin jokatu duela eta bere proposamenak Alkatetzaren eta teknikarien proposamenak ezagutu ondoren aurkeztu dituela.

6.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2024KO EGUTEGI FISKALA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, Barne Antolaketa batzordeak 2023ko irailaren 22an emandako diktamena ikusita, gaia eztabaidatu ondoren, **HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ** [guztira **HAMAHIRU BAIEZKO BOTO**; gehiengo osoa, beraz]:

ONARTZEA 2024ko egutegi fiskala; hau da: 2024ko zerga eta prezio publikoen egutegi fiskala, ordainketa-epeak zein diren zehazten duena. Epeak adierazitako egunean bukatuko dira, edo, egun hori baliogabea bada, hurrengo egun baliodunean.

TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA	
Borondatezko epea	Martxoaren 1etik apirilaren 30era
URAREN ETA ESTOLDERIAREN TASA	
1. hiruhilekoa 2024 (urtarrila-otsaila-martxoa):	
Borondatezko epea	Martxoaren 18tik apirilaren 19ra
2. hiruhilekoa 2024 (apirila-maiatza-ekaina):	
Borondatezko epea	Ekainaren 17tik uztailaren 19ra
3. hiruhilekoa 2004 (uztaila-abuztua-iraila)	
Borondatezko epea	Irailaren 16tik urriaren 18ra
4. hiruhilekoa 2024 (urria-azaroa-abendua)	
Borondatezko epea	2024ko abenduaren 16tik 2025eko urtarrilaren 17ra
ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA (OHZ)	
Borondatezko epea	Maiatzaren 13tik ekainaren 28ra
JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEKO ZERGA (JEZ)	
Borondatezko epea	Urriaren 1etik azaroaren 8ra
IBILGAILUAK ESPALOIETAN BARRENA FINKEN BARRURA SARTZEA ETA AUTO-TAXI LIZENTZIAREN URTEKO MANTENIMENDUA	
Borondatezko epea	Urriaren 1etik azaroaren 8ra
ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ETA ALOKAIRUAK	
Astebete, likidatutako hilabete bakoitzaren hurrengo hilaren 1etik aurrera	
UDAL ERABILERA PUBLIKOKO LURRAK MAHAI, MAHAITXO, AULKI EDO ANTZEKO INSTALAZIOEKIN OKUPATZEA	
Borondatezko epea	Urriaren 1etik azaroaren 8ra

UDAL-AZOKAKO SALTOKIAK	
1. hiruhilekoa 2024 (urtarrila-otsaila-martxoa):	
Borondatezko epea	Otsailaren 16tik martxoaren 27ra
2. hiruhilekoa 2024 (apirila-maiatza-ekaina):	
Borondatezko epea	Maiatzaren 13tik ekainaren 28ra
3. hiruhilekoa 2004 uztaila-abuztua-iraila)	
Borondatezko epea	Abuztuaren 16tik irailaren 30era
4. hiruhilekoa 2024 (urria-azaroa-abendua)	
Borondatezko epea	Urriaren 1etik azaroaren 8ra
UDAL BARATZEAK	
Borondatezko epea	Urriaren 1etik azaroaren 8ra

7.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez zen eskari edo galderarik izan.

Horrenbestez, udalbatzarrera bertaratutako pertsona batzuek hitza hartu eta gero, alkateak eskerrak ematen dizkie etorritako guztiei eta bilkurari amaiera ematen dio. Erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

Horrenbestez, alkate-presidenteak bilkurari amaiera ematen dio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, idazkaria naizenez, akta hau egiten dut alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA,

IDAZKARIA,